

no podemos permitirnos el lujo de no avanzar rápidamente en el plano cultural.

Este Frente cultural que debe formarse, este frente de coordinación en el plano cultural que nuestro pueblo pide a gritos, no solamente serviría para impulsar debidamente las diversas facetas de nuestra cultura, sino que también debería ser el que fuese poco a poco haciendo recular los límites de la « ilegalidad ».

Este Frente podría ser el que, una vez engranado con la realidad, diese los pasos oportunos para infundir una nueva fuerza a la acción de masas y a la acción no violenta, facetas que, dadas las condiciones objetivas actuales de Euskalerrria, España y de la situación internacional, son absolutamente necesarias para completar las acciones actuales de ETA y EGI; y si realmente se llegase a conjuntar y coordinar todo el conjunto de las acciones, podríamos pensar que la libertad de nuestro pueblo estaba al alcance de nuestra mano.

ZABALA.

Produzio interesak eta klase burruka gaurko gizartean zozialismoa. Estrategia berri billa.

Zaharrak ez diran eta berrituko ez ote diran utzi gaituzten ikasleen errebolta (erreboluziorik ez omen ziranez !) azpitik jarraitzea ez da erreza. Baiña merezi du.

Edozeiñek daki : noizpait antziñako garaietan egurrezko nahiz harrizko lanabes guztiz errez eta xingleekin jardun izan da langillea. Bizi ahal izateko ziarduen artean gizonak. Alegia, jazteko, jateko ta etsaiengandik defenditu ahal izateko. Gizamortu bat zan oraindik gizadia, erakunderik batere gabe : ezen ez baitzan oraindik gizarte batean elkartu, danak berdiñak ziran, ez zan nagusi ta morroirik.

Produzio-premiek hartaraturik, ordea, alegia, gehiagoren premian aurkitu zanean, erraminta gero ta hobeak sortzen etorri zan gizona. Hoek asmatu ala mailla berriko (eta estruktura berriko) elkartasunetan lotu beharrean ere aurkitu zitzaigun. Gizabanakoa ez baita, izan ere, dana berak bakarrik obratzeko gauza. Adibideren batekin argitzeko : soroa landu behar zuenak goldea. egingo ziona behar zuen.

Lanbanaketaren premia zekarren besteren behar honek. Hala, gizartea ez da bere funtsean lanbanaketaren erakunde besterik. Langintza banatuta zeukan gizarteak sartu zuen kondairan jabegoa. Jabegoarekin, Marx-ek Rousseau-rekin esan zezakeanez, ba genituen onezkero esklabutza ta hasarrebidea ere. Ba genituen kondairaren faktore eragikorrenak. Esklabua argertu zanean berean agertu zan erakunde hau justifikatzen zuen ideologia. Esklabuak galestiegi bihurtu ziranean eta industriari kaltegarri bilakatu, orduan inmoraltzat eman zuen ideologiak esklabujabetza.

Hola joan da kondaira aldatzen eta aurreratzen, langailluak hobetu ala gizartearen harremanak ere berriro eratuaz, eta hoek ideologia eta morala ere baliogabetzen edo moldeberritzen zituztela. Hola goaz, maillaz mailla, joputzatik soro-morrontzara ta hoentatik azkenean jorنالارitzza edo lansaritzaraiño.

Bidegite honetan jartzen digu kondairaren ulerkera marxistak (guk

asko xinpletu behar izan dugu, noski) gizadiaren aldakuntza ta aurreragintza.

Produzioa izan da, ba, kondairari aurrera eragin diona. Aurreragille edo progresista esklabujabea agertzen zan bere garaian, eta kapitalistak geroago, nahiz-eta benetan aurrerazale ta aurreragille ere langillea izan. Nagusiak eskuratzen baitzituen mendekoen irabaziak.

Marx-en esaera trakets xamarrari lotzen bagatzaizkio honela adieraziko genuke : *prouziopremiek* *produzioindarrak* eta hoen (berebat hoentzako) egiturak zahar uitzi ala eta moldeberritu (erreforma) premian jarri, *produzioharremanak* ere aldatzen eta moldeberritzen joan dira. Alegia, klaseartekotasuna edo klaseen arteko harremanak ere *produzioindarren* egoera aldatzen joan ala aldatu dira. Ondasun hobe ta gehiagoren premiek, hots, *produzio-interesek* eragindako *produzioindarren* eraketak ezagutarazten du *produzio-harremanen* nolazkotatasuna. *Produzio-interesek* erabaki dituzte *gizartearen* erakunde moldeak.

Materialismo historikoaren ardatzeko ta sustraiko dugu ulerkera guzti hau. Halare hau ez dugu marxismoarena bakarrik. Utopizaleengandik hasi eta gaurko zozialismo suerte danak barne, moldeberrizale edo erreformista soil ez diran guztiek dabilta ikusmolde honen hurbil xamarretik. Zer esanik ez, halare beronen balioa ta pixua oso desberdin estimatzen dituztela segun nun eta zeiniek.

Hola ba, klaseak izkutatatu eragiteko *produzio-indarren* eraketa berri bat ezinbestezkoa dala uste du erreformismo hutsean amildu ez dan *zozialismo* jatorrak. Hortik aurrera, *produzio-indarren* eraketa berri hau ezarri orduko, alegia, lantresneria norbakoitzaren jabetzako izatetik *gizartetartu* edo *gizartearendu* orduko, sustraitik erauziak zirakeala nagusikeria guztiak pentsatzen zuen Marx-ek. Eta alienazioak ere bai, bertanbera.

Baiña hemen sortzen zaigu *zozialismoen* arteko zenbait hauzi eta kalapita. Neomarxismoak ere hementxe jotzen du.

1. - *Ekonomiazko alienazioa* alienazio moral ba dana gaur gehienek onartua dago. Alienazio morala funtsean huraxe danik, halare, eta batez ere, mamienean huraxe besterik ez danik, alegia, *ekonomiazko alienazio*, egizta ezin leikeana da batetik, eta bestetik, arrazoi askotxok hitzegiten dute ustekizun horren aurka. Dana dala, guzti horren hola-koxetasun historikoa, materialisma « zientziazkotzat » aurkeztu nahi bazaigu ere, egiztatu ahal izatetik oso urrun daukagu. Egunetik egunera urrunago, uste dudanez. Hontatik jalgi da gure egunotan *ekonomiazko erreboluzioa*, beharrezko izanik ere, bera bakarrik nahiko ez dan ustea, hots, *ekonomiazko erreboluzioa* hasiera baiño ez dan ustea. Horren ondotik politikazko *zozialismoak* etorri behar du, etabar. Eta ez « klase berririk » .

Gaurko eginkizuna ezin izango da orduan Marx hitzetik hortzera aipatzea. Hura ere bere garaiak baldintzatuta baitzebillen. Ezpda harek bere sasoiari egin zuen bezalaxe, gaur ere gaurko interesak aztertzea. Interesotatik baitago zintzilik klasetasunaren esanahi guztia, edo-ta, beste ikusmolde batetik, interesok dakarte *erreboluzioaren* indar eragillea.

2. - Zeintzuek dira ba gaur langilleriaren interesak? Galdera honi zuzen-zuzenik erantzun ordez, hobe izango dugu lehenengo *produzio-interesen* mundua nola agiri zaigun begiratzea.

Marx ezkeroko ehun urte handietan poliki bestelakatua dugu gizarteko egoera. Horregatik, Marx-en itxaporen asko haizeak jan dituela uste da zenbait aldetan. Galdegarri azaltzen da, esate baterako, gizarteko egitamu ta erakundeetan jabegoak jokatzen duen betekizuna norainokoa dan zehaztea. Marx-ek ezaguturiko garaian eta produziomoldean bizitzarako beharrezkoak sortzekotan ari baitzan oraindik industria. Bestetik, lantresneriaren jabeak aisa menderatzen zuen beste guztia ere : politika, ikaskizunak etabar. Horren aurrez, langilleak ez zuen lantresnarik, eta ez-eukitze horrek beste ezer ere ez eukitzea zekarren berekin.

Gauza jakiña da egoera hau harrezkero dexente bigundu zaiguna. Halare, lehengo leku berean geundeke, bigundu besterik ez balitz egin. Prolema da, ea gaurko produzio-intererek lehengo leptik ote duten burua oraindik ere. Hala, ordea, ez ote diran kondairan haize berriak sartu.

Gaurko produzioak aspaldian gauditua du bizitzarako beharrezkoen sortzea (hola-esaniko zenbait herri superindustriatsutan behintzat). Produzio-intereseren hedadura ere, klaseen markoak gauditurik, nazioarteko problema bilakatu omen da funtsean. Hori dala-ta, ei dira herribarneko antagonismoak herri superindustriatsu bat sakonenean nabarmentzen dutenak. Edo behintzat, ez omen dira zuzenki lan-konflikto antagonisma hoek. Ezta ere ez omen da jabegoa esplotazio-iturri zitalena, URSS-etako etsenpluak erakusten digunez. Herriok gaurko beren bentajari eutsiko badiote, bigarren planoko eginkizun omen da jabetza gizartetartzea. Eta interesik nabarmenema, beren gaurko egoera beste herrialde erdi-hazi edo sub-hazien kontrast afir-matzean datza. Hots, Amerika-ko produzio-indarren interesak, esate baterako, eta bide batez produzio-harremenak definitzekotan, ez dago Amerika Aamerika-ri buruz aztertzerik, ezpada Amerika bere neokoloni-erri buruz.

Honekin ez da ukatzen Amerika-ko langilleek ere beren nagusiekin kontuak garbitu beharrik asko ba dutenik. Aurkatasun honen iturburu eta arrazoiak produzio-interesak ote diran galdetzen da bakarrik.

3. - Plangintzarekin topo egin dugu. Marcuse-k behin eta berriro azpimarkatzen duenez fingaizto izugarri batean porrot egin nahi ez duen gaurko produziomoldeak ez dauka beste salbabiderik onezkero, plangintza edo planifikazio hertsu bati lotu baiño. Plangintzaren interesak dira produzio-interesik eragikorrenak. Eta esplotazioaz mintzatzeria itzuli ezker, esplotazio aren iturririk bortitzena plangintza bera ari omen zaigu gertatzen. Alegia, gaur egiten ari geran plangintza. Politika, kultura, dana bildu digute teknokratek beren sareetara. Plangintzaok obratzeko garaian (eta gaurkoz holaxe omen dugunez, produzio-interesak plangintzarenak berak baldin badira) liburu baten horrialde soil bihurtu zaizkigu klase-interesak. Hoek orain arte bezala ulertu nahi badira behintzat.

Honekin zera adierazi nahi da : gizarte bateko produzio-harremanen giroa hola-halakotzen duen giltzarri magikoa ez dala iñola ere jabetza pribatua. Txit kaxkarrak baitira honen ahalbide edo posibilidadeak plangintzaren aldean. Beraz, jabego pribatuaren deuseztatzea erreboluzioaren helburu bat dala onaturik ere, ezin pentsa liteke hori egin ezker gainuntzeko guztiak berariz etorriko zaizkigunik. Askoz sakonago jarri beharko da erreboluzioaren azkeneko helburua. Marx-ek huts egin

zuen honetan (Rousseau-ri harrigarri urbiltzen zitzaizolarik berriz ere). Marx-ek, ordea, Estadia ere behin honera ezkerro zearo galduko eta ezereztatuko zala uste zuen, eta hortara logikazko zitzaion halaxe pentsatzea. Hori utopia omen da, halare, tamalez. Eta zer esanik ez Eliza katolikoaren irakaspen ofizialek ere bete-betean hutsegiten zutela, pertsonaren duintasuna eta bereskukotasuna salbatzeko karian jabegoa defenditzen zuenean. Udazkeneko hostro bat ari zan defenditzen, arbolaren izenean.

Theodor Mulder-en hitzak aldatuz adierazteko : « Aldatzen doakigu ondasunen jabetza eta ekonomiazko erantzukizuna (eginkizuna) elkarrekin lotzen zituen behinolako egoera : aldatzen, eta hain zuzen, ahultzen eta esanahia galtzen. Lanekarte (edo enpresa) handienak, millaka familien bizimodua oinarritzen dutelarik, jadanik ez daude nagusiek eta jabeek eramanda. Aditu edo perito talde batek, hots, teknikoek daramazkite. Hoek seinalatzen dute bidea. Lanaren eta kapitalaren arteko tradiziozko etsaitasuna ere zentzunez aldatzen doakigula adierazten digu honek » (cfr. G. Girardi, *Cristiani e marxisti a confronto sulla pace*, 1967, or. 45-46). Lanaren eta kapitalaren antagonismoak, bada, zutik badirau ere, esfera berri baten barnean dauka zentzun zuzenik eta baliotasunik.

4. - Nire saio honekin ahalik eta gutxien sartu nahi nuke zoziologia hutsaren eta ekonomiaren esparruetan. Onar bekit, halare irakurleak, Euskal Herriarekin zerikusirik ba duen eta usu aipatzen dan adigarri bat.

Plangintzaok bazterrera uzten dituzten zenbait lurralde ere nazio-barneko « irugarren mundu » bihurtzen zaizkigu xistima honekin. Hola, zenbaitetan, lurralde bat beste baten interesen alde esplotatzen danean (Mussolini-k Milan-go industria Erroma-ko zentralismoaren alde esplotatzen zuen bezala). Zer da ba, hori, etxe-kolonia besterik ? Eta gaitzerdi, halare, esplotazio hori helburu tajuzko baterako danean, eta ez, esate baterako, premiekin konformidaderik batere gabeko Armadak eusteko. Orobatsu, edo okerrago, lurralde bat mixeriari lotzen zaionean, haren izankizun guztia eskladu-mintegi izatera kaxkarturik, langilleriak lurraldaira beste erremodiorik ez daukalarik, plangintza guztietatik at laga dalako. Eskual Herriari Frantzia-rekin gertatzen ari zaion gisa edo desgisan.

Hoek dira batez ere klase berria (hori hotsegin dute Dutschke-k eta Cohn-Bendit-ek Marcuse-ren ondotik), eta hoek erreboluzioaren indarra : hots, *integratu gabeak*.

Langillea (eta bide batez sindikatoa, Alderdia, edo-ta edozein langille-ren erakunde esan nahi dugu), xistiman integratua dagoenean, ez da « burges koxkor » besterik. Eta asko danean ere ez da moldeberrizale baizik, ez sekula ere erreboluziogille. Hain zuzen, integratua dagoelakose.

5. - Biziki larriak dira guzti honen ondorenak. Izan ere, begien bixtan baitago gure edozein gizartetan ere klaseak egon ba dagozena. Neomaxismoak ez du hori sekula ukatu. Ezta erreboluzioa langilleriak egin behar duenik ere. Arrazoi eta faktore eragilleak aldatu egin dirala hain zuzen, azterkizuna : nola agiri zaigu gaurko gizartea bere produziomoldeari buruz ? Nola definitu gaur klasetasuna ? Zein betekizun jokatzen digu jabegoak ?

Zer ote dan ondo antzeman ezin zaion Proteo malapartatua izan da beti klasetasunaren konzeptua. Marx-ek zehaztu gabe utzi zigun.

Lenin-ek eman digun definizioak, aldiz, hau baita klasikutzat erabili pentsatzen da, ordea.

Beti izango bide dira gizartean diferentziak, Hala esan ohi da. Diferentziok, halare, berez eskuera berdinak leuzkaketan gizonen artean bakarrik onar ditzakegu. Hots, ez diruak, ez Alderdi bateko lagunkide izateak, ezta xistimari integratua egoteak eta ez beste ezer antzekok desberdintzen (bereizten) gaituztelarik. Ba dira gaur ere diferentziak, eta ba da gaur ere produziopremiari azpiraturik egote bat. Hauxe da, ohi dana, marxista klasikueri bezalatsu balio die gaur neomaxisteri. Ez ahaztu beste zenbaiten aurka ari zan artean Bogdanow-en kontra ere ba ziarduela Lenin-ek bere zehazgintzan. Lenin-en definizio ozta-ozta egiten zaiela ikusiko dugu (formula gisakoetan behinepein). Bogdanow-en klase-banaketa (alegia, bi dira klaseak, ordena-emailleena eta ordena-betetzailleena) neke handirik gabe baztertu izan dute komunista klasikoek. Bogdanow, izan ere, kalamidade hutsa zan, empireokritizista, II Internazionalako teoriko etabar... Harrezkero, Marx-ek irakasten zuen produzio-harremantetan alde batetik edo bestetik egotearekin, kapitaldun edo gabeko izatearekin, hots, lanabesen jabegodun ala gabetu izatearekin berdindu izan da tradizionalki klasetasuna. Ez zan horretarako arrosorik falta. Kapitalak, hots, lantresneriaren jabetzak ematen baitzituen gizartea nolana manipulatzeke ahalbideak. Dana dala, Marx-ek berak ez zuen holakorik inoiz esan.

Eta hola esan digute orain neomaxistaren batzuek ere, zerbait balio gabetu nahi danean egin ohi dan erreztasunarekin, eta agian desarrazoi handirik gabe, stalinismoak zabaldu eta indartu zuela klasetasuna jabegoarekiko zerikusian definitzeko, amorrutari hori. Jabego pribatuko ondasunak nazioarentu baitzituen, eta horrekin klaseak erabat desagertu arazi zirala erakutsi nahi zuen stalinismoak. Jabego pribatua gaudituz zala-ta, listo zegoela gizartetargintza edo zozializazioa.

Iruzur hutsa, orain batek baiño gehiagok oharrerazten digunez. Ezen ondasunen taldearentze edo kolektibizatzea, edo-ta nazioarentzea, zozializatzeke erak baitira, dudarik gabe, edo agian maillak, baiña ez berez eta derrigor gizartetargintza edo zozializazioa bera. Guztia behinepein ez. Horretarako ez da nahiko inori bererik kentzea eta Herrikostituzioan haren jabe herria izendatzea. Alegiazko eta papereko zozializazio soil litzake hori oraindik, ez gauzazkoa. Beraz, jabego tituloaren ingurutik ez dago klasetasuna definitzerik. Klase molde bat deuseztatzeak ez baitu esan nahi klasegabeko gizartea sortu danik. Gaurko kapitalismoan jabe izateak jabetza nahi dan eran, (jus utendi et abutendi) manejatuz ditekian adierazten ez omen duen bezalatsu. Langilluari itzuli behar zaiona ez da langailluen jabego tituloa ta izena, baizik-eta produzioaren gauzazko jabeizatea. Jabetza honen faltak ezereztaratu zizkion eskubide formalak benetan herriaren eskuetan ez dauden artean, nahiz-eta hoek Alderdi edo Aginpide herritar omen diralakoek euki ta erabili, hanarte horretan ez dago benetako zozialismorik. Ekonomia hutsezko zozialismoa, gehienik ere. Baiña zozialismoa ekonomiazka teoria soil baiño askoz gehiago da, edo ez da ezertxo ere.

Hau ez da mixteriorik Milovan Djilas argi asko mintzatu zitzaigun ezkerero.

Beraz, ba dago jabe izan edo ez berdintsu dala eta derrigor kapitalarena ez dan herria manipulatzeke estruktura moduz bat, porrokatuz behar

dana. Ba dago manipulatzailerik eta manipulaturik. Beraz, esplotaturik. Beraz, bai gizarte-modelo berrien premiarik.

6. - Berez asma diteke neomarxistaok nahi luketen erreboluzioa ez dala komunista klasikoek hotsegiten dutena. Hemen banan-banan azter ezin ditzakegun kapitulu askotan mutur jotzen baitute elkarrekin : Estaduaren konzeptuaz (neomarxistak anarkismorantza makurtzen dira), Alderdi komunistaren izankizunari buruz (Rosa Luxemburg-en bidekoago dira ezker berriok), etabar.

Kapitalismoa aztertzeokan bertan ere ikusmolde arrunt desberdiñak agertzen dituzte bi taldeok, alegia, marxistak eta neomarxistak. Neomarxistek diotenez, gaur arte marxismoari eman zaizkion erakundeek ez dute funtsean klase prolemarik gainditu, kapitalismoa bezalaxe autoritarismoaren basian finkatu baitira hoek ere. Eta kapitalismoa bera ez da ibilli marxismoak iragarritako hondabidean. Kapitalismoa ez du bere barneko ahuleziak galduko. Nekez ikusaraz diteke produziomodulu bezala zozialismoa kapitalismoa baiño emankorrago danik ere. Eta alferrik enpeiñatzen dira edozein gertaeratan kapitalismoaren hondabide sintomak eta azken zotiñak somatu nahirik. Kapitalismoa bizi-bizirik dago, aparteko osasun gordiña du, eta ez da Mao-zaleek nahiko luketen « paperezko katamotzik » ere. Edo, paperezko tigrea bada, ez indarrrik falta zaiolako ,injustiziarekin eta gezurrarekin armatu dalako da.

Klaseen prolemek kapitalismoaren baitan ere forma zeharo berria lortu digu. Aurreragintzak ekarri dizkigun gaurko arazo ta premieri dagokien eraketa tenikoan, izan ere, hots, gaurko proiektok eskatzen duten produzio-indarren eraketan, klasetasunaren eta klase-interesen gaiñetik organizatu dira produzio-indarrok. Klaseak desagertu ez dira egin, baiña hoen arteko kontrariotasunak eragille, interes desberdiñak ditu gaur. Produzio-interesetan bat egin dute patroneriak eta langillertalde handi batek. Zeren-eta, produzio horrek aurren-aurrenik esplotatzen duena ez baita langillea, hirugarren mundua (herribarnekoa bada ere) baizik. Hirugarren munduko nazioak eta integratu-gabeak dira ba gaurko klase esplotatua. Paris-eko langille integratuek eta kapitalistek esplotatzen dute « eskual » langille lan-gabea. Eta Bizkaikoek... !

7. - Nazio osoaren produzio-interesaren barnean urtu dira interes partikularrak. Lantegi bakar bat bezalatsu da gaur nazioaren industria. Hau hotsegiten dute teknokratek, eta ez iñor engaiñatzeagatik bakarrik, egin ere horixe bera egin dutelako baizik. Ez da falta, esate baterako, Amerika-ko industria, Estaduaren eskuhartze direktorik ozta-ozta batere gabe ta produzioaren interes ta bide berezkoek hartaraxeturik, Errusia-koa bera baiño batasun eta plangintza hertsia goa jarraitzen ari zaigula frogatu ahal uste duenik.

Hola, neomarxistaok diotenez, bi interes-bloke monolitikotan eratu omen ditu superbizi beharrak Amerika-ko industria liberala batetik, eta Errusia-ko nazioarendua bestetik. Bloke hoen barnean kaxkar-kaxkartu egin omen dira klase-interesak. Edo-ta, bere esanahia ahuldu da, nazioen artean halabeharrez klaseen artekoak baiño antagonismo agitz bortitzagoak agertu diralarik. Orduan kapitalak erdi-klase fuerte ta erabakitzaille bat sortu ta indartu du herri-barnean (Ford) eta langille ezpezializatuen taldeak ugaritu. InteresarenATEGITE honek ere arazi du benetako proletariotza berria, USA-ren, nahiz URSS-en sateliteak, eta zenbait sateliteren (Inglatera, etc) urrengo planetak...

Kapitalaren nazioartekotasuna errealdade larria da eta errealdadea berpentsatzera obligatzen gaitu. Prolema da, ea kapitalak ez ote duen, neomarxistaren bat bildur dan bezala, klasetasuna galdu (paradoja badirudi ere). Ez ote duen nazio osoa (edo gehientsua) klase bakar bihurtu. Eta ez ote dagoen hementxe edozein koloretako neokolonialismoaren kakoa.

Guzti hoen azterketa zehatzak egiterik ez daukagun ezkerok, ez gera hoek epaitzen ere geldituko. Nolanahi ere, eta harritzekorik aski ba du, guzti honek beste gabe gomutarazten digu 1914-eko Trotzki, gerrate austro-errusitarrekoan gerraren eraso zala-ta, langilleriak kapitalismoaren interesak bere egiten zituela zionean...

Klaseen prolema nazioarteko bihurtu bazaigu, ba dirudi nazio supreindustriatsuetan erreboluziorik egitea fanatismo besterik ez litzakeala. Eta iritzi honetara makurtu dira tradizionalki erreboluziolari agertzen ziran zenbait ezkertiar ere.

Ez neomarxistak ! Erreboluzioa hotsegin dute hoek. Eta gizartearen azterketa berri batean oiñarritzen dira honetarako. Bi hitz bihurtu dira azterketaon bilduma edo formula : *Establishment*, eta *integrazioa*.

Joxe AZURMENDI.

ISRAEL

Al hablar hoy aquí del problema israelita quisiera hacerlo desde un punto de vista práctico. Del de un vasco que analiza los aciertos que han tenido los judíos, tanto en el plano nacional como en el social.

Es evidente que el análisis de la trayectoria de no importa qué pueblo presenta aspectos positivos y negativos y concretamente el caso del pueblo judío es, hoy en día, objeto de grandes controversias y discusiones.

En este análisis no entraré a discutir si los judíos tenían o no derecho a inmigrar a una tierra que desde hacía unos 1.300 años estaba ocupada por gente de origen árabe ⁽¹⁾ ni del problema de refugiados

⁽¹⁾ Todo aquél que quiera documentarse sobre las posturas árabe y judía en el conflicto que opone a ambos pueblos sobre la posibilidad de la existencia de un país independiente en Palestina y de la forma que debería tener el Estado correspondiente, debe leer el número especial 253 Bis que ha editado « Les Temps Modernes » (Revista mensual editada en París) en 1.967, bajo el título « Le conflit israélo arabe ». El lector encontrará en este número especial, de 991 páginas, una abundante base de apoyo a ambas tesis en controversia.

Para aquel que no desee profundizar en este tema, podrá decir que, en general, los judíos fundan sus derechos a su implantación

1º) Los lazos históricos de Israel con la « Tierra Santa ».

2º) La necesidad de poner un término a la vida errante y al calvario milenario sufrido.

3º) Su trabajo en Palestina antes de la independencia, en donde en unos años consiguieron que subiera enormemente el nivel de vida debido al gran esfuerzo que desarrollaron.

Los árabes responden, en general, que ellos no tienen por qué pagar los perjuicios y persecuciones que hayan podido sufrir los judíos en el mundo.

Sobre la tierra de Palestina, dicen, vivía un pueblo árabe desde